



ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAREN AURREAN: 2013KO URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 9a

Legebiltzarreko presidente andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2013. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Joan den ekainaren 2an Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten hauxe ezagutarazteko asmoz. Agerraldi hartan herritarrek iaz egin zizkiguten kexen analisi kuantitatiboa egin nuen, labor azaldu nituen erakundeak burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoen eta gomendio orokorren berri eman nuen, eta agerian jarri nuen herri-administrazioek zenbateraino betetzen duten Arartekoari laguntzeko betebeharra. Gaur, osoko bilkura honen aurrean azalduko dut Arartekoa arautu zuen legeak "Autonomia Erkidegoko eskubideak babestearen egoeraren balorazio orokorra" deritzona. Mintzaldi honetarako eman didaten denboran, ezin da behar bezala adierazi eskubideak zenbateraino babesten diren Arartekoaren jardura antolatzen duten 28 arloetako bakoitzean eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoan. Horregatik, gure balorazioaren alderdirik garrantzitsuenak azpimarratuko ditut, pertsonen eskubideak ongien babestearen ikuspegitik begiratuta eta Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta euskal udalen sailen jarduerak eta politika publikoak kontuan hartuta, bereziki nabarmenduz eskubideak babestearen ikuspuntutik ahulenak diren taldeak. Nire agerraldiaren edukiari zuzenean heldu aurretik, iaz egin genuen lanaren daturik esanguratsuenak aipatu nahiko nizkizueke.

Oro har, herritarrei zerbitzua egitearekin eta administrazioak kontrolatzearekin lotutako jarduerak 12.507 izan dira, 2012. urteko 11.770 jardueren aldean, hau da, %12tik gora ugarritu dira urte bakarrean, eta %93, berriz, 4 urtean (6.446 2010ean).

9.610 kexa izan ditugu orotara (8.189 aurrez aurre, 1.017 Internet bidez, 344 idatziz eta 59 ofizioz) eta 2.746 kontsultari egin zaie kasu telefonoz. Beste jardura batzuk ere egin ditugu: 70 bilera gizarte-erakundeekin, 65 herri-administrazioekin, ikuskatzeko 3 bisita. Era berean, 9 gomendio orokor egin ditugu, eta txosten berezi bat prestatu.



Herritarren kexei dagokienez, egiazta daiteke %15 gehitu direla 2012. urtekoen aldean eta %120, berriz, 2010. urteaz geroztik, arrazoi askorengatik, baina batez ere eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioen inguruko kexa anitz daudelako.

lax, kexa sortarazi zuen administrazioaren jarduera aztertu ondoren, jarduera okerren bat egon zela iritzi diogu aztertutako kexetatik %56,2tan. Eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik %86,22tan.

1. HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

Ondoren, HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN gairik garrantzitsuenak azaltzera noa. Dakizueenez, bulego horrek Arartekoaren baitan jarduten du. Bulego horren lana honela laburbildu daiteke, ikuspuntu kuantitatibo bati jarraiki: 319 kexa-espeditu izapidetu dira, horietako 35 ofiziozkoak. Hainbat gizarte erakunderekin lankidetzan aritu da eta topaketa eta eztabaida foroetan parte hartu du.

Gaiaren arabera, arloak honela banatu dira: Hezkuntza, kexen ia erdiarekin (%48), askoz urrunago, babesik gabeko haurrentzako gizarte-zerbitzuak (%11), eta gainontzeko arlo guztiak %10etik behera. Gai horien artean, aurten gazteentzako lonjen gaia nabarmendu da.

Alabaina, aipatutako kexa-espeditu horiei gizarteratze arloan izapidetutakoak gehitu behar dizkiegu. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta beren kargura seme-alabak dituzten familien ehuneko ezarrita (Eusko Jaurlaritzaren "Haurren pobrezia Euskadin" azterlanean agertzen da ehuneko hori) kalkulatu dezakegu euskal familiek diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazioez egin dituzten 236 kexa-espedituetan, eskasiako egoera ekonomikoak eragindako neska-mutilak daudela.

Pobrezian edo gizarteratik baztertuta geratzeko arriskuan dauden familietako adin txikikoen egoera dela eta, honako hau adierazi behar dugu:

1. Haurren pobrezia aurkako estrategia bat behar da, non familia txiroentzako edo baliabide gutxiak dituzten laguntza kontuan hartu den.
2. Aintzat hartu behar ditugu prebentziozko jarduerak, eta goiz esku-hartzea. Bizitzako lehen urteetako desberdintasunek eragina izaten dute adin nagusiko desberdintasunetan. Hori inork ez du eztabaidatzen. Horregatik, aukeraberdintasuna eta haurtzaroen norbera garatzea lortzeko lan egiteak ondorioa du: itzulera ekonomikorako ahalmen kontrastatua eta gizarte-koheren handiagoa, hain polarizatuta ez dagoen gizarterean.



3. Politika osagarriak indartu beharko lirateke, bada krisiak lehenago, gogorrago, luzarago eta ondorio kaltegarriago eta iraunkorragoekin eragiten die gizartean egoerarik txarrean dauden pertsoneri eta taldeei.

Haurrentzako Bulegoak lan garrantzitsu bat egin du: hain zuzen ere, babesik gabeko haurren alde hainbat jardura burutu ditu gizarte zerbitzuen arloan, baina baita familia, justizia eta hezkuntza arloetan ere. Horietan guztietan, haur eta nerabeen sufrimendu psikologiko eta emozionala izan da kezka nagusia, gurasoen arteko haustura gatazkatsuetan eta horien ondoren; gainera, kezkagarria da arriskuan jartzen ari dela adin txikikoek bi gurasoekin harremanak izateko duten eskubidea. Horregatik guztiatik, gure ustez komenigarria izango litzateke instantzia judizialek nahiz administrazioek adostasunaren eta bitartekotzaren aldeko kultura sustatzea, gurasoei haur eta nerabeen interes gorena errespetatuz, zainduz eta lehenetsiz banantzen laguntzeko.

2. HEZKUNTZA

Ikasleak onartzeko prozesuei buruzko kezak jaso ditugunez gero, oraindik indarrean jarraitzen du erakunde honek hezkuntza administrazioari egindako gomendioak, prozesu hori kudeatzean modu arduratsuan joka dezan, plaza nahikoak ez dauden kasuetarako xedatuta dauden lehentasunezko irizpideak zentzuz ezarriz.

Hezkuntza-plangintzari dagokionez, arazorik handienak zero eta hiru urte bitarteko hasierako etapan daude oraindik ere, batik bat bi urteko gelen eskaintzan.

Horrez gain, Sailaren arduradunak animatu nahi ditugu abiarazitako ildotik lanean jarrai dezaten, hau da, eskola komunitateko ordezkari guztien partaidetzarekin plangintza demokratikoa ahalbidetu eta erraztu dezaten.

Halaber, krisi ekonomikoaren oraingo egoeraren ondorioz, hezkuntza arloko eragile batzuek eskola-jantokiaren zerbitzuan gertatzen ari diren egoera batzuk nabarmendu dituzte.

laz, eskola inklusiboaren esparruan, Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategiakoa abian jarri zela ikusi genuen. Orduan uste genuen plan horren ebaluazio eta jarraipenaren bitartez hobetu zitekeela ikasle jakin batzuei –ahalmen handikoei eta arreta faltaren nahasmenduak dituztenei- ematen zaien hezkuntza-erantzuna, horien egoerak kexa ugari sortzen baititu. Jakina, gogoeta horiexek hedatu nahi ditugu aurkeztu berri den Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-planera ere.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu, berriz ere, eskola-bizikidetzaren gaineko gida berrien aplikazio sistematiko eta eraginkorra sakontzeko premia dagoela, tratu

txarren egoeraren diagnosi zuzena egiteko, biktimei laguntza, babesa eta segurtasuna emateko eta eragindako familiekin konfiantzako eta komunikazio oneko harremana mantentzeko xedeak bete daitezzen eta xede horiei behar bezalako erantzuna eman dakien.

3. OSASUNA ETA OSASUN ESKUBIDEA

Ezinbestekoa da, osasun sistemaz mintzatzean ere, egungo egoera sozioekonomikoa kontuan hartzea. Hein honetan, aipatu beharra daukagu Konstituzio Auzitegiak zer adierazi duen 114/2012 Dekretuaren indarraldiaren etendura kentzea justifikatzean, eta nola kontuan hartu duen pertsonen osasunerako eskubidea eta osotasun fisikorako eskubidea, baita ere gizarte osoan osasunerako arriskuak ekiditeko komenigarritasuna ere. Eskubide horiek ezin dira indargabetu dirua aurreztu litekeela uste hutsagatik. Krisialdia ez da neurri murriztaileak hartzeko erabili behar, baina osasun sistemen gainean hausnartzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko balio du.

GAIXO KRONIKOEN ESKUBIDEEAK direla eta, esan behar dugu Osasun Sailak tratamenduekiko atxikidura errazteko hartu dituen neurriek eragin mesedegarria dutela gaixo kronikoek prestazio farmazeutikoak eskuratu ahal izatean, eta horrek osasun eremuko gizarte-desberdintasunak murrizten laguntzen duela.

Sentikortasun kimiko anizkuna duten pertsonak artatzeari dagokionez, neurriak hartu behar direla azpimarratu nahi dugu, beharrezkoa iruditzen zaigu eta.

Euskal botere publikoek, erakundeen arteko lankidetzaren bidez, presako neurriak hartu behar dituzte gaixo kronikoak arreta soziosanitariorik gabe gera ez daitezzen, izan ere, horrelako egoerak sor daitezke Mendetasuna Baloratzeko Baremoa aplikatzearen ondorioz. Baremo hori 2012ko otsailean jarri zen indarrean estatuan.

BURUKO GAIXOTASUN EDO NAHASMENDUREN BAT DUTEN PERTSONEI BURUZ, adierazi nahi dugu oso egoera ahulean daudela eta zailtasun handiagoak izaten dituztela baliabide publikoak eskuratzeko. Horregatik, botere publikoek haien eskubideak benetan gauzatzeko baldintzak bermatu behar dituzte. Horretarako, gaixo horiek komunitatean egiaz txertatu ahal izateko ezinbestekoak diren jarduera guztiak bultzatu behar dira: ostatua, hezkuntza, enplegua, gaitasun ekonomikoa, estigma erauztea, parte hartzea, e.a.

Egin diren aurrerapenak gorabehera, buruko osasunaren esparruan errehabilitaziorako bitarteko egitura nahikorik ez dagoela antzematen jarraitzen dugu (eguneko ospitaleak/zentroak, gainbegiratze-maila desberdinetako ostatuak, okupazio-zentroak, komunitate terapeutikoak, klub sozialak eta errehabilitazio psikosozialerako ospitaleak).



4. GIZARTERATZEA

Krisi ekonomikoak oraindik ere gurean dirauenez gero, DBE eta EPOren onuradunen kopuruak gora egin du 2013an, diru-sarreraren sisteman marka historikoa lortuz. Areagotze horren ondorioz, hartzaileen profila geroz eta anitzagoa da.

Diru-sarrerak bermatzeko sistema hori elementu garrantzitsua da gizarte-kohesiorako. Halaber, EAEko txirotasun eta bazterkeria-tasak Europar Batasuneko batez besteko kopuruaren azpitik mantentzen laguntzen du, Euskadi European desberdintasun-maila baxuena duen gizarteen artean finkatuz.

2013an hobekuntza nabarmenak antzeman dira Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema kudeatzean, zehazki DBE eta EPOren kudeaketan. Hala ere, oraindik aurrera egin beharra dago da hainbat alderdi garrantzitsutan: adibidez, erabakiak behar bezala arrazoitzean eta aurreikusita dauden prozedurazko bermeak betetzean. Orobat, baliabide materialak hobetu behar dira, bereziki aplikazio informatikoak eta giza baliabideak, Lanbideren bulego guztietan. Hornidura horiek areagotu egin behar dira, ematen den zerbitzuaren eraginkortasun hobe bermatzeko.

Presakoa eta beharrezkoa da diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legea garatzea, oraindik egiteko baitago.

Gizarte-bazterketaren arloan lanean ari diren gizarte-erakundeak finantzaketa-arazoak jasaten ari dira, laguntzetan eta diru-laguntzetan egindako murrizketen ondorioz. Horregatik, horien jarraitutasuna ere arriskuan dago. Egiten duten lana oso beharrezkoa da gure gizartearentzat, herritarrei hurbiltasuna eta malgutasuna eskaintzen dizkietelako eta administrazio publikoetara hurbiltzen ez diren edo bete beharreko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen arreta ematen dietelako. Gizarte-erakunderik ez balego arretarik gabe geratuko litzatekeen espazio bat betetzen dute erakundeok. Beraz, horien lana babestu beharra dago, gizarte-kohesioa lortzeko eta desberdintasunen kontra borrokatzeko. Horretarako, aurrekontu-partidek hornidura egokiak izan behar dituzte, pertsona kaltetuenean beharizanak asetze aldera. Aurrekontu-partida horiek, gainera, lehentasunezkoak izan behar dute krisi-garaian, orduan gehitu egiten baitira pertsona ahulenen zailtasunak.

Lehentasunezko eta presako helburua da, oraindik ere, etxerik ez duten pertsonen beren oinarrizko beharizanak estalita edukitzea: hain justu, elikadura, ostalua -batez ere neguan-, higiena eta arropa egokia.



5. POLITIKA PUBLIKOEN HARTZAILE DIREN TALDEAK

Izenburu honen azpian sartu dugu 2013an gai honetaz egin dugun ebaluazioa: benetako berdintasun eraginkorra izateko eskubidea -Konstituzioaren 9.2 artikuluan jasoa- bermatzeko, politika publikoak behar dituzten talde ahul-ahul batzuk. Halako egoeran dauden beste talde edo kolektibo batzuen berri emango dugu azalpen honetako atal berezietan.

Euskal herri-administrazioek arduraz hartu behar dute beren gain horrek guztiak dakarren erronka, hau da, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasuna babesteko eskubide subjektiboa gauzatzea, bere politika guztietan lehenetsiz oso ahula den kolektibo horrentzako arreta. Horretarako, gakoa da, alde batetik, gaur egun daukaten ahalmena baliatzen jarraitzea: eragindako kolektiboari babes-maila gehigarriak ezartzea; eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren onarpenak dakarren aukera bikaina aprobetxatzea, Estatuan agerian jarri den atzerapena arintzeko eta Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea egiaz ezarriko dela bermatzeko, gure erkidegoak esleituta daukan gizarte zerbitzuen arloko eskumen eksklusiboaren adierazpen argi gisa.

Zahartze aktiboaren paradigma bi zutabetan oinarritzen da: adinekoen giza eskubideak aintzat hartzean, batetik, eta zenbait printzipio betetzean, bestetik: independentzia, partaidetza, duintasuna, laguntza eta autoerrealizazioa. Paradigma horrek politika publikoen taxutzea bultzatzen jarraitu behar du. Azken helburua da pertsona guztiak ongizate fisiko, sozial eta psikoafektiborako duten ahala bizi-ziklo osoan gauzatzea, eta beren premia, nahi eta gaitasunen arabera gizartean parte hartzea eta, behar duenean, babesa, segurtasuna eta zaintza egokiak jasotzea.

Administrazioen aurrekontua murriztearen ondorioz, ez litzateke kendu behar ezgaituek jasan ohi dituzten oztopoak kentzeko finantzaketa publikoa. Gainera, laguntza farmazeutikoaren mende-mende dagoen kolektibo horri laguntzeko neurri bat da ezgaituentzako sendagaiak doakoak izatea. Zuzentasunaren funtsezko eskakizuna da laguntza hori mantendu eta oro har ezartzea.

Arartekoak oso ontzat jotzen du euskal administrazioak hartu duen jarrera: alegia, ondorio horietarako, atzerritarraren administrazio-egoeraren arabera bereizketarik ez egitea, atzerritarren bizitzarako eta osotasunerako eskubideari eta haien duintasunari eragiten dielako.

Migrazio fluxuak mantsotu badira ere, eta datuek migrazioaren fenomenoak gizarte, ekonomia eta kultura arloetan Euskadin egituratu egin dela erakusten duten arren, etorkinen aurkako ideia negatiboak eta jarrerak, bai eta xenofobia ere, hazten ari dira. Horregatik, beharrezkoa da indartzea eta garatzea harrera, gizarte inklusioa, aniztasunaren kudeatzea eta gizarte kohesioa helburu duten politikak.



Ijitoei dagokienez, erroldan izena emateko eskaerak oraindik arrazoirik gabe ukatzen direla ikusi dugu. Ezinbestekoa da egoera hauek gainditzea, errolda gaur egun nahitaezko baldintza delako osasun, hezkuntza eta gizarte-babeserako sistemak eskuratzeko, azken batean, gizarte eskubideak bermatzeko. Ijitoek pairatzen duten estigma erauztera bideratutako erakunde-lana ez da nahikoa; horregatik, helburu hori duten erakundeen arteko programak eta jarduerak bultzatu behar dira.

Joera homosexuala edo identitate transexuala duten haur eta nerabeen eskubideak babesteko politika publikoen eremuan, hauxe nabarmendu behar dugu: euskal administrazioak berriaz adierazi du dagoeneko aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-aniztasunerako eskubideen ikuspegi hori txikitatik sartu nahi duela hezkuntza-sisteman. Horretarako, 2013an, Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta hezkidetzeta lantzeko plan estrategikoa onartu du. Horren haritik, jarduera egokia da Rainbow Has Europako proiektua garatzea, aniztasun afektibo-sexuala errespetatzearen aldeko hezkuntza emateko. Proiektu horretan Europako 8 herrialde parte hartzen ari dira, Arartekoaren zuzendaritzapean. Horrek euskal hezkuntza-erakundeekin elkarlanean aritzeko aukera ematen digu, neska-mutilentzat eskola toki segurua izango dela ziurtatzeko tresnak sortzeko asmoz.

6. BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN OSOTASUN FISIKOA

Iaz, Euskadin, erailketa bat gertatu zela deitoratu eta salatu behar dugu, maiatzean Amagoia Elezkano hil baitzuten Laudion. Sarritan adierazi dugunez, eraso larri edo erailketa bakoitzaren ondoren, zehatz-mehatz ebaluatu behar da gertatutakoa, poliziaren eta gizartearen babesari, informazioari, biktimei laguntzeari eta tratu txarrak ez antzemateari dagokienez, zer hobetu daitekeen aztertu behar da, helburu bakarrarekin: honelakoa bezalako kasu tragiko gaitzesgarriak berriz gerta ez daitezen ahalegintzea.

Generoaren ikuspegitik, nahitaez nabarmendu behar dugu krisia eragin handia izaten ari dela batez ere emakumeengan, eta, gainera, horien kargu daudela adin handiko, mendeko eta haur gehientsuenak. Hortaz, emakumeek, bereziki guraso bakarreko familien titularrak direnek, oso talde ahula osatzen dute krisi-egoeran. Hortaz, larriagotzen ari da gure inguruan aspaldi igarri zen prozesu bat: pobretasunaren feminizazioa.

Era berean, azken urteotan adierazi dugunez, herri-administrazioek gaur egun erronka honi egin behar diote aurre: ekintza positiboko neurriak abiarazi behar dituzte, emakumeak historikoki oso presente edo ikusgai egon ez diren eremuetan haien partaidetza eta ikusgarritasuna sustatzeko bideak ireki daitezen. Eskola kirola da horren adibide adierazgarri bat.



Aurrerapen aipagarri batzuk egin dira, emakumeentzako arreta hobetzeko borondatea erakusten dutenak, polizi arretaren esparruan bereziki gertatzen den bezala. Hala ere, oraindik zailtasun ikaragarriak daude indarkeriaren infernua sufritzen duten eta horri bukaera ematea erabakitzen duten emakumeentzat. Zailtasun horiek prozesu judizialen esparruan, etxebizitzaren arloan eta lanerako sarbidean sortzen dira batez ere. Dena den, onartu behar dugu Euskadin esparru horretan egiten den erakundeen arteko lan handia ezinbestekoa dela zailtasunok antzemateko eta, indarkeriatik ateratzeko prozesu zail horretan, emakumeei laguntzeko baliabide egokienak jartzeko. Emakundek gai hori koordinatuta egin den erakunde berregituratzearen ondorioz, emakumeengandik hurbilago dauden zerbitzuen esku utzi da haientzako laguntza eta zuzeneko arreta. Berregituratze hori koherentea da formulazioan eta etengabe ebaluatu beharko da datorren aldian.

7. ESPETXERATUAK ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Euskal Herriko espetxeetan dauden pertsonen emandako arreta dela eta, unean uneko disfuntzioak gorabehera, ontzat jo behar da Osakidetzaren barruan integratu izana. Osasungintzaren arloko espetxeetako laguntza-eredu berrian, osasun-laguntza publikoaren egitura osoko beste zati bat bezala definitzen da kartzelako osasun-baliabidea. Testuinguru horrexetan adierazten dugu espetxe arloko eskumenak osorik bere gain hartzearekin batera –hainbaitetan eskatu dena-gizartea kontzientziatzeko prozesu bat abiarazi behar dela. Prozesu horretan garrantzitsua izango da ez bakarrik zer, baizik eta baita ere nola eta, batez ere, zertarako.

Krisiak eragina izaten jarraitu du Justizia administrazioak kalitateko zerbitzu publikoa eskaintzeko duen ahalmenean. Gure azken txostenetan egiaztatzen ari garen joera bat da. Ez gara mintzo Justiziako administrazioaren zerbitzura dauden baliabideen murrizketaz soilik, baizik eta baita ere -Justizia berriztatze helburu aitortua dutela- eskubideen tutoretza judizialaren eraginkortasunean ondorio kaltegarriak dituzten zenbait araudi-aldaketaz. Horixe salatu dute Arartekoaren lanaren arlo honetan 2013an Arartekoarekin lan egin duten operadore juridiko guztiek.

Gure iritziz, berriro ere eskatu behar dugu delitu terrorista bat egiteagatik espetxean dauden euskal presoek Euskal Herriko espetxeetan edo gure erkidegotik hurbil daudenetan bete dezatela zigorra, modu egokian ezar dadin zigorra betetzea birgizarteratzerara bideratu behar dela dioen printzipioa.

8. ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA



Krisi ekonomiko eta sozial larria dela eta, euskal administrazio publikoek sendotu egin behar dituzte etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko baliabideak, beharrik handiena duten pertsonak eta familiak babesik gabe eta funtsezko ondasun hori gabe gera ez daitezen.

Ekonomiaren eta lanaren ezegonkortasun horrexegatik, hain zuzen, gure autonomia erkidegoko etxebizitza babestuaren eskatzaileek etxebizitza bat alokairu erregimenean izatea eskatzen dute batez ere. Hortaz, herri-administrazioek dezente gehitu beharko dute alokairuan ematen den etxebizitza babestuaren eskaintza. Gainera, aztertu beharra dago ea alokairu publikoen prezioak neurrizkoak diren gaur egun, eta, beharrezkoa bada, neurri egokiak hartu beharko dira babes publikoko etxebizitzaren onuradunek zailtasunik gabe aurre egin ahal izan diezaioten etxebizitzak sortutako gastuari.

Orobat, komenigarria iruditzen zaigu erosketa erregimenean sustatzen diren etxebizitza babestuak erabiltzeko edota esleitzeko bide berriak bultzatzea, adibidez, erosteko aukera ematen duen alokairua, alokatzeko behin-behineko baimenak ematea, alokatzeko asmoz birkalifikatzea, etab. Horrela, finantzaketa faltagatik erosteko aukerarik ez duten esleipendunek etxebizitza horietaz gozatu ahal izango dute.

Oraingo egoeran, koordinazio mekanismoak ezarri behar dira etxebizitza eta gizarte zerbitzuen arloetan eskumenak dituzten herri-administrazioen artean, etxegabetzeak, pobrezia eta gizarte bazterkeria saihesteko.

Aurten ere aditzera eman behar dugu herritarrek kexa ugari egin dizkigutela ekonomia- eta finantza-erakundeekin dituzten harremanetan sortutako arazoengatik. Nahiz eta, gatazka horretan, euskal herri-administrazio bakar bat ere nahastuta ez egon, Arartekoaren bulegoak ezin du bazter utzi bizitzen ari garen egoera larri hau. Horregatik, gaiarekin zerikusia duten eragile guztiekin lankidetzan aritzen saiatu da, eragindako pertsonak -batez ere hipoteka-zordunak- babesten aurrera egiteko.

Ahaleginik handiena egin behar da etxebizitza izateko eskubide konstituzionala babesteko, familia bakar bat ere, pertsona bakar bat ere ez dadin gera etxerik gabe.

9. HERRITARREN SEGURTASUNA

Poliziaren zeregina, jakina denez, zeregin garrantzitsuenetako bat da edozein gizarte demokratikotan, herritarren eskubide eta askatasunak bermatzea duelako helburu, herritarrak seguru eta lasai egon daitezen zainduz eta, horretarako, delinkuentziaren kontra borrokatuz. Beraz, Ertzaintzako eta udaltzaingoetako



agenteek egiten duten lanari balioa eman nahi diogu, eta lan hori eskertu, polizia kidego horiei baitagokie gure eskumenak erabiltzea.

Polizi jarduera gauzatzeari buruz jaso ditugun kexetan, beste ekitaldi batzuetako gaiak agertu dira berriro, esate baterako, indarraren erabilera eta horren barne kontrola; ustez zuzenak izan ez diren jardueren barne-ikerketa; argiketak kontrolatzea, horiek eragin dituzten gertakariei dagokienez; bide publikoko identifikazioak eta araketak; atxiloketa-aldiko gorputz miaketa; zigor jurisdikzioak hasieratik faltatzat jotzen dituen edo, haren iritziz, zigor urraketarik eragin ez duten gertakariengatik atxilotzea; agintekeria eta agenteek identifikazio profesionalaren zenbakia emateari uko egitea. Arartekoaren 2013ko urriaren 7ko Ebazpenean gai horietariko batzuk aztertzen dira.

Oraindik ez dira ezarri indarraren erabilera eta argiketen edukia ikuskatzeko gomendatu ditugun mekanismoak. Oro har, oraindik ez dira ezarri urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean polizi jarduerak ikuskatzeko gomendatu genituen mekanismoetako gehienak.

Ikerkuntzaren kasu zehatzari buruz, bere horretan diraute beste urte batzuetan antzeman genituen gabeziek.

Aurten berriz kexak sortarazi ditu etxerik gabeko atzerritarrak beraiek bizi diren eraikin abandonatuetatik irtenarazteak. Arartekoaren 2013ko apirilaren 24ko ebazpenean eta 2013ko abenduaren 11koan jasota daude aurten egin ditugun bi adierazpen, poliziak etxe-hustuketetan egindako bi jardueraren gainean eta, gure ustez, bete behar diren bermeen gainean. Gure iritzirako, bi kasu horietan ez ziren bete aipatutako bermeak, eta bizilekuaren bortxaezintasunaren eskubideari eragin zitzaion.

Ostera agerian jarri behar ditugu etorkinak identifikatzeko kontrol orokortuari buruz jasotako kexak. Horren gainean, oraindik ez dira ezarri arlo horretan jarduera diskriminatzaileak saihesteko gomendatu ditugun prebentzio-mekanismoak.

10.INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Ingurumen arloko informazioa jasotzeko eskubideari dagokionez, Ararteko erakundeak azpimarratu nahi du ingurumenari buruzko informazio eskaerak arin eta lehenasunez izapidetu eta ebatzi behar direla, betiere ingurumen arloan informazioa eskuratzeko eskubideak eta partaidetza publikoa eta justizia arautzen dituen legeak ezarritako hilaibeteko epean. Epe hori bete dadin –funtsezkoa baita beste eskubide batzuk, adibidez, erabaki publikoetan parte hartzeko eskubidea baliatzeko –, euskal herri-administrazioak nahikoa baliabide tekniko eta elektronikoz hornitu beharko dira.



Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren jarduera egoki bat aipatu dugu. Izan ere, sail horrek informazioa emateko bilerak egiten ditu ingurumenari lotutako auzi edo gatazketan interesa duten elkarte ekologistekin edo auzo elkarteetako ordezkariekin.

11. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Funtzionarioek gure bi hizkuntza ofizialak jakiteak ez du bermatzen, berez, baten edo bestearen erabilera herritarrentzat aukera askea izatea administrazioarekin dituzten harremanetan. Izan ere, ia alferrikakoa da administrazioaren zerbitzuko langileek euskararen hizkuntza-profil jakin bat ziurtatu behar izatea, erabiltzaileei kasu egiteko garaian ez badira bi hizkuntzak normaltasunez erabiltzen beren jarduerak esparru guztietan.

Arazo konplexua da eta, konpondu nahi bada, gizarte- eta politika-adostasun zabala lortu behar da. Edonola ere, botere publikoek erabakitasunez esku hartu behar dute gai horretan, kontuan izanda desoreka horrek euskal hiztunen eskubideen erabileran eragiten duela, batik bat osasun, justizia eta segurtasun arloetan.

12. KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

2013an egiaztatu dugunez, ez dago simetriarik finantza-produktuak erosten dituzten pertsonen ematen zaien informazioaren eta banketxeak daukan informazioaren artean. Horixe jarri da agerian bankuen sektoreari buruz herritarrek egin dizkiguten kexarik gehienetan.

Herritarren kexa asko bat datoz gauza batean: ez zaie informazio nahikorik eman finantza-produktu edo zerbitzu bat kontratatzeke orduan, ezta ere horren aurreko faseetan. Eragindako pertsonen salatu duten informazio eskas edo partzial hori agerian jarri da lehentasunezko partaidetzak erostean, mendeko finantza-ekarpenak eskuratzean, zoru-klausulak ezartzean, HMEI-Kutxan hipoteka-maileguren erreferentzia-indizea duten hipoteka-maileguak kontratatzean edo, sinatutako hipoteka-maileguren kontratuetan %20tik gertu dauden berandutzako interesak sinatzean.

13. DATUAK BABESTEA ETA INFORMATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO TEKNOLOGIAK

Iaz burututako hainbat jardueratan egiaztatu dugunez, komunikatzeko gizarte-sareak eta sare publikoak erabiltzeko orduan, oro har informazio gutxi ematen da,



ez da kontzientziatzen eta ez dira ekiditen portaera arriskutsuak. Horrek erraztu egin dezake hedatu nahi ez diren informazio, datu eta irudiak zabaltzea, artxibo horien zaintza eta transmisioa oso ahulak direlako.

Herritarrek euren datuen segurtasunaz duten kezka gero eta handiagoarekin lotu behar da hori. Arartekoaren ustez, oreka lortu behar da berrikuntzaren eta gizarte-sareen ahalmen izugarriaren eta pertsonen eskubideak bermatzearen artean.

Arartekoak e-inklusioari eta gizartean parte hartzeari buruzko txosten berezia argitaratu du. Horri esker, iritzi-elementu berriak lortu ditugu gaur egungo egoeraren eta IKTek gizarte aktibo eta inklusibo bat sustatzeko eta herritarren partaidetza errazteko daukaten ahalmenaren diagnostikoa egiteko, baita euskal herri-administrazioei helarazitako proposamen eta ekimen multzo bat ere.

* * * * *

Gaur azkenekoz agertuko naiz Legebiltzar honen aurrean urteko txostenaren berri emateko. Oraingo honetan, bi gertakari jazo dira aldi berean: batetik, Arartekoaren bulegoa zuzentzeko aukeratu ninduten bigarren eta azken agintaldi honen bukaera; eta, bestetik, pertsonen eskubideak babesteko sortu zen Legebiltzarraren goi mandatari gisa definitutako erakunde honen 25. urtemuga. Egokia iruditzen zait foro honetan adieraztea 25 urteotako balantzea nabarmentzekoa modukoa dela. Zenbakiak aski adierazgarriak dira: 103.168 kexa bideratu dira eta 20.000 jarduera baino gehiago burutu. Arartekoaren eguneroko lana gutxi agertzen da hedabideetan, baina bertan lan egiten dugunok pozik eta harro esan dezakegu arazo asko konpondu dizkiegula milaka herritarri, izan ere, kexa-espedita sortarazi duten administrazio-jardueren erdietan baino gehiagotan ondorioztatu dugu administrazioak ez duela jokatu administrazio onaren printzipioaren arabera edo ez dituela behar bezala bermatu babestu behar zituen eskubideak. Jakina denez, gure gomendioak ez dira nahitaez bete beharrekoak, baina gure eskaerak hartu dituzten administrazioek gure gomendioak bete dituzte %86tik gorako ehunekoan, iazko datuen arabera. Gainera, apaltasunez lagundu dugu, gure gomendioen eta egindako bileren bidez, sektoreko politika publiko ugari hobetzen edo osatzen, eskubideen defentsaren eta demokraziaren kalitatearen mesederako.

Arartekoa euskal herritarrei zerbitzu publikoa egiteko erakunde beharrezkoa eta baliagarria bihurtu da. Ararteko karguan lanean hasi nintzenetik, hiru helburu nagusi izan ditut: gure zerbitzuari kalitate gorena ematea, gure eragingarritasuna ahalik eta gehien areagotzea, eta etengabe gure eraginkortasun-maila eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialaren maila igotzea. Era berean, gure lana optimizatzeko asmoz, ahalegin izugarria egin dugu ahal bezainbeste indartzeko herri-administrazioekin ditugun lankidetzaharremanak, baita ere eskubideak defendatzen diharduten beste erakunde batzuekin koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko harremanak ere. Zehazki, oso ona izaten ari da Espainiako Herriaren



Defendatzailearen eta Arartekoaren eta gainontzeko defentsa-erakunde autonomikoen arteko koordinazioari buruzko estatu mailako legearen aplikazioa eta kudeaketa, eta ez da bikoiztasun bakar bat ere gertatu.

Giza eskubideei dagokienez, pozarren aipatu nahi dut ETAk 2011ko urrian egin zuen iragarpena, non adierazi baitzuen betiko eta atzerakorik gabe amaituko zuela bere jarduera terrorista. Balio demokratikoak nagusitu dira. Bukatu da, beraz, modu lazgarrian eta larriki urratzea oinarri-oinarrizko giza eskubideak: bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, askatasunerako eskubidea, eta abar. Harrezkero, milaka eta milaka herritar jada ez daude heriotza mehatxupean, estortsiopetan, jazarpen edo hertsapenaren pean. Dena den, giza eskubideen ikuspegitik, ETari berriz exijitu behar diogu baldintzarik jarri gabe desegin dadila.

Poz horrekin batera, kezka sakon bat ere adierazi behar dut, eskubide sozialak (batez ere babes-sistemarekin lotutakoak) baliatzen diren testuinguru sozioekonomikoaren ondorioz sortutakoa. Testuinguru horren bereizgarriak dira langabezia gehitzea, gazteen langabezia tasa jasangaitza izatea, aurrekontu murrizketak, desberdintasunak areagotzea, baita ere gizartetik baztertua geratzeko arriskua, biztanle askoren bizi-mailak eta diru-sarrerek nabarmenki eta bat-batean behera egitea, laneko eta gizarteko prekariotasunak dezente gora egitea, etorkizunerako ziurgabetasuna handitzea, laneko baldintzek eta eskubideek okerrera jotzea, xenofobia areagotzea, erakunde publikoen ezinbesteko legitimazioa ahultzea. Elementu horiek eszenatoki berezi bat ekarri dute berekin: eszenatoki horretan ikusten da, gure ustez, elkartasun balioa hautsi dela, baita gizarte-kontratua deritzona ere, eta bi zutabe horiexetan oinarritzen da Estatu sozialaren eraikina. Horrek guztiak egoera arras zaila irudikatzen du eta eskubideak bete-betean erabiltzeko eta politika publikoen jarduerarako oso giro ezkorra sortzen du.

Giza eskubideak (kasu honetan, eskubide sozialak) babestearen ikuspegitik, berriro adierazi behar dugu eskubideok –gizarte babesarako sistemari lotutakoak eta, bereziki, gizarte-bazterketa eta pobrezia prebenitzeko eta horien kontra borrokatzeko tresnak barne hartuta- legeriak exijitutakoak direla, eta, gainera, betebehar etikoa direla; betebehar horrek lotura estua du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi garen gutako bakoitzaren duintasuna bermatzearekin. Horregatik, beste behin esan behar dugu jo eta su lan egin behar dugula gizarteko elkartasun, ekitate eta justizia, eta gizarte inklusio eta kohesio balioen alde, horretarako adostasun politiko eta sozial zabalak eratuz. Nahiko nuke inork ezin esan ahal izatea Euskadin ez dela betetzen edo ez dela bete nahi Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren lehen artikuluan ezarritakoa. Horretarako, behar bezala babestu behar da gure herrialdean bizi diren pertsona guztien eta bakoitzaren duintasuna.



Zuen aurreko azken agerraldi honetan ez ditut aipatu gabe utzi nahi botere publiko eskudunen beste jarduera batzuk, izan ere, gure ikuspuntutik, agenda publikorako gai garrantzitsuak dira, honako helburuok erdietsi nahi baditugu: demokrazian aurrera egiten eta sakontzen jarraitzea, etengabe eraikitzen eta hobetzen ari den zerbait delako; administrazioen kudeaketan gardentasunik handiena lortzea eta informazioa jasotzeko eskubidea ahalik eta gehien baliatzea; administrazio ona izateko eskubidea behar bezala bermatzea, herritarren eskaerei beti bizkor, argi eta ondo arazoituta erantzunez eta tratu ona emanez; herritarrek parte hartzeko bide eragingarriak jartzea, e.a.

Bestalde, osorik garatu eta aplikatu beharra dago 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa. Orobat, motibazio politikoengatik indarkeria dagoen tokian giza eskubideak urratzen badira eta bidegabeko sufrimenduak eragiten badira, biktimei onartu eta bermatu egin behar zaizkie egiarako, justiziarako, oroitzeko eta ordaina jasotzeko eskubideak, Legebiltzar honek onartu duen legez besteko proposamenaren izenburuaren arabera. Denok dakizunez, tortura eta tratu txarren biktimez mintzo gara, baita ere polizi agenteek indarra edo armak neurritz gain, justifikaziorik gabe edo legez kontra erabiltzearen ondoriozko biktimez.

Eta buru-belarri lanean jarraitu behar da emakumeen eta gizonen berdintasuna eremu guztietan bermatzeko -baita kirol, jai edo aisia arloetan ere- eta eguneroko bizimoduan bereizkeria edo desberdintasuna pairatzen duten talde edo kolektiboen benetako berdintasun eragingarria bermatzeko. Bereziki aipatu nahi ditut ezintasun fisiko edo adimenekoa duten pertsonak, buruko nahasmendua edo gaitza edo gaixotasun arraroren bat dutenak. Baliabide eragingarriagoak jarri behar dira emakumeen kontrako indarkeria erazteko, eta zenbait plan, programa eta politika garatu behar dira sexismoa, matxismoa, arrazakeria, xenofobia, homofobia, transfobia prebenitu eta desagerrarazteko, baita ere pertsona ezberdinen kontrako ideiak eta jarrerak, horiek larriki urratzen baitituzte balio demokratikoak eta giza eskubideak.

Hona hemen azken urteotan gehien areagotu den arazoetako bat: kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak ez dira aski eta behar bezala babesten pertsonen bizitzarako funtsezko zerbitzuak kudeatzen dituzten zenbait enpresa pribatuk egindako abusuen eta zentzugabekeriaren kontra. Funtsezko zerbitzu horien artean aipatzekoak dira argindarra, gasa, telefonia finkoa edo mugikorra, interneta, hipotekak eta finantza-aktiboak, garraio-zerbitzuak (batez ere airekoa). Botere publikoek gai hori lehenetsi beharko lukete.

Bukatzer a noa. Ararteko erakunde an egiten duten emakume eta gizon guztien lana jendaurrean gorai patu nahi dut. Langile bikainak dira, merezimendu eta gaitasun irizpideen arabera sartu ziren erakunde honetan eta, lan ona egiteaz gain, laneko bete beharrez harago dagoen aparteko denbora eskaintzen diote beren





zereginari, motibazio ikaragarria baitute Arartekoaren helburuak ahalik eta ongien betetzeko, edo, bestela esanda, herrialde honetako herritarrei zerbitzatzeko.

Orobat, bene-benetan eta bihotzez eskertu nahi ditut legebiltzar talde eta legebiltzarkide guztiek nire betekizunak betetzeko orduan eman dizkidaten konfiantza eta laguntza, hasieratik eta modu jarraituan. Konfiantza eta laguntza horiek izan ezean, ez zen egiterik izango Legebiltzarraren goi mandatari honen lana. Eskerrik asko.

Milesker.

